

Euskadiko hamar gaztetatik lauk ikastea dute jardun bakartzat

Euskadiko hezkuntza-sistemaren balorazio positiboak orokorrak dira, eta areagotu egin dira azken urteotan

2012-2013 ikasturtea amaituta, Gazteen Euskal Behatokiak hainbat datu eskaini nahi ditu gure gazteen hezkuntza-mailei eta Euskal Autonomia Erkidegoko gazteek Euskadiko hezkuntza-sistemari ematen dioten balorazioari buruz.

Hori dela-eta, Gazteen Euskal Behatokiak 2012an egindako ikerketaren datuak hartuko dira oinarri. Bertan, 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri euren eguneroko bizitzari, jokaerei, jarrerai eta balioei buruz galdetu zien Gazteen Euskal Behatokiak.

Ikerketa haren emaitzen arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 41ek ikasten dihardute, bakarrik. Zifra horiek, ordea, nabarmen aldatzen dira adinaren arabera. Hartara, 20 urtera artekoengan, jardun bakarria ikastea dutenen ehunekoa % 87 da; % 8, aldiz, 25 eta 29 urte bitartekoengan.


Amaitutako ikasketa-mailari bagagozkio, gazteen % 38k derrigorrezko ikasketak amaitu dituzte, edo oraindik ere horietan murgilduta daude; % 31k bigarren mailako ikasketak amaitu dituzte, Batxilergokoak izan ala erdi-mailako heziketa-zikloren bat (Lanbide Heziketako moduluren bat); gainontzeko % 31k goi-mailako ikasketak amaitu dituzte: goi-mailako heziketa-zikloa edo unibertsitate-ikasketak.

Amaitutako ikasketen harira, adinari dagozkion alde logikoez aparte, ataka nabarmena dago gizon eta emakume gazteen artean: goi-mailako ikasketak dituzten nesken ehunekoa nahiko handiagoa da ikasketa-maila bereko mutilena baino (% 36 eta % 27, hurrenez hurren).


Arreta ikasketa-mailan jarri ordez, ikasketa-motan jarriz gero, zera konprobatu ahal izango dugu: Heziketa Zikloak ikastea (erdi-mailakoak nahiz goi-mailakoak) ohikoagoa dela mutilen artean, nesken artean baino. Hartara, erdi- edo goi-mailako heziketa-zikloak amaitu dituztela diotenak % 29 dira mutilen artean eta % 20, nesken artean.

Jarraian, egindako ikasketetatik harago joango gara: gazteek Euskadiko hezkuntza-sistemari nolako balorazioa ematen dioten aztertuko dugu. EAeko hamar gaztetatik 6ren ustez (% 59), gure autonomia-erkidegoko hezkuntza-sistema oso ona edo nahiko ona da. % 8k, ordea, balorazio txarra edo oso txarra ematen diote.

Gure hezkuntza-sistemari buruzko iritzia positiboek gorakada xume baina egonkorra izan dute azken urteotan.



Euskadiko hezkuntza-sistemaren balorazio positiboa orokorra da eta antzekoa kolektibo guztietan, gazte bakoitzaren ikasketa-maila gorabehera.



Horrek esan nahi du Euskadin, hezkuntza-gaietan egiten diren jarduerak balorazio ona jasotzen dutela, oro har, gazteen ustez. Baina badago zer hobetu ere, nagusiki unibertsitate-mailan. Izan ere, unibertsitate-ikasketak dituzten gazteen % 10ek gure hezkuntza-sistema nahiko txarra edo oso txarra dela diote.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

